

Ababatxua

Badator negua. Orbelez jositako maindire arreak estali ditu sustraiak eta lurra.

Lurra elikatzen den bitartean, dena dago isilik eta geldi, udazkenean natura isilik eta geldi egon daiteken neurrian behintzat.

Haratago, zelaian, behe-laino trinkoa zabalduz doa eta laino artean antzematen da baserria. Baserri zaharra sendoa da, irauteko sortua, egonkorra eta irmoa.

Lanbroarekin nahasirik, han doa airean lo-kantua ezkaratzeko leihotik kanpora.

Ababatxua txingorin gorri
ez egin lorik basoan,
azagariak eroan ez zagizan
erbitxuren bat zaralakoan.
Logura da eta lo egingo neuke
baneuka oherako laguna.
Oherako laguna badaukat baina
agure lepo makurra.

Ama eserita dago aulki baxuan. Sehaskan dagoen seintxoak kulunkatzen ari da mekanikoki eta kumaren eraginera abesten. Lo-kantaren hitzak kirieleisonalez botatzen ditu.

Ez dira hitzok goxoak, ez denak bederen; baina berak jakin badaki bakarrik dagoela, umeak ez diola ulertzen, umeari ez zaiola axola eta inork ez diola aditzen.

Bere bakardadean asaskaldi txiki bat da kantuarekin lortzen duena, ama gogaituta bai dago, arranguratuta. Gaztea bada ere bihotza lizuntzen hasia du egokitu zaion senarragatik, zapuztutako ametsengatik. Kontralto ahots sakon sarkorrari bihotz apurtuaren malenkonia eta frustrazioa darie. Egurrezko kumatxoan umea lo dago lasai.

Ikasi, jolastu, dastatu, gozatu, lan egin, bidaiatu, maitatu, maitasuna agortu eta berriro hasi, ondo pasa, txarto pasa, gaixotu, sendatu, agurrak irentsi eta liseritu, erabakiak hartu, aukerak egin, lan egin, bidaiatu, ikasi, jostatu, maitatu eta huts egin berriro ere; puskak hartu ostera hasteko, hori bai, arrakalak gehituz berez hauskor denari.

Beti ari da hasten geldirik ez dagoen errealitate likido horretan orekaren antzeko zerbaiten bila.

Eta badoa denbora iheskor, hain arin doaz urteak bi egun berdín ez dituen eguneroko honetan...

Bihotza dauka apar harrien modukoa, hutsunez beteta eta hutsuneok, denboraren higaduraz, gero eta handiago gero eta hutsago.

Erabakiak hartzea.

Behin baino gehiagotan desiratu zuen besteren batek berari zegozkion erabakiak hartu zitzala.

Izan ere, askatasunak ez ditu halabeharrez gauzak errazagoak egiten; erabaki bat hartzeak beti dakarrelako bigarrena aldi berean, hartutakoa bat eta bigarrena ezinbestean atzean utzitakoa.

Damurik ez du, alferrik delako damua. Kulpa edo autoflagelazioaren antzerakoa da damua, superstizioen eta erlijioen kontu zaharrak.

Baina erantzukizuna badauka eta pena handi bat, bizitza bakarra izatearena eta ez bi; bata seme-alabadun bizitzeko eta bestea ez.

Ia ez da antzematen kaleetan, udaleko garbitasun zerbitzuko langile maratzek orbelak jasotzen dituztelako egunean-egunean. Asfaltoan preso dauden zuhaitzak biluzik daude eta hego haize txistukariak iragartzen du badoala udazkena eta badatorrela negua.

Ababatxua txingorin gorri
ez egin lorik basoan...

Gaur emakume haren oinordeko bat da emeki bere buruari abesten diona hiriaren zabalgunean berriki eraikitako berrogeita hamar metro koadroko apartamentu batean.

Pena ate joka duenean, orduantxe abesten du lo-kanta hura eta berak ez daki zergatik baina lasaitu egiten da.